

Datorren astean, Erle Eguna

Hitzordu gozoena hemen dugu. Zenbait euskarrietan, igande honetarako iragarria dagoen arren, azaroaren 30ean ospatuko da datorren Erle Eguna. Hamaseigarren edizioa ere, gozo-gozo dator. Oparo; marrazki, ezti eta gozogintza txapelketekin, salmenta postuekin eta ezti kata gidatu eta guzti:

Azaroak 30, igandea

09:00-10:00 Ezti eta gozogintza lehiaketetarako jakiak aurkezteko tartea.

11:00-14:00 Erakusketa (erleak, eztiak, ontziratzeko prozesua...), postuetako salmenta, txistulariak, marrazki lehiaketa, bideoak Sutegin.

10:30 Ezti Kata Gidatua eta ezti nola ateratzen den erakustaldia.

12:30 Kizki lagunak: Argazki erraldoirako 400 lagun batzeko erronka.

13:30 Erleak beraiek ekarritako sari banaketa (aurten sorpresa



Eztigintzari loturiko erakusketa eta salmenta postuak 11:00etan irekiko dira.

ERLE EGUNA, FRONTOIAN

***“Goizeko 11:00etan
hasiko da azoka. Ezti kata
gidatuak antolatu dira
aurtengo edizioan”***

eta guzti).

- Ezti Lehiaketako irabazleak.
- Gozogintzako irabazleak.
- Marrazki Lehiaketako irabaz-

leak.

- Ezti Lehiaketan irabazleak suertatzen diren eztiak, errifak salgai izango dira eta zozketa eguerdian egingo da.

Bazkarirako txartela, 25 euro

14:30 Bazkaria Artzabalen. Txartelak 25 eurotan frontoian izango dira salgai.

Antolatzailea: Erle Lagunak.